



KUTXABANKEN «UDAKO LANAK SARIA DAKAR» KANPAINA

1.- Zertan datza Kanpaina hau?

KUTXABANK SAK (aurrerantzean, “Kutxabank” edo “Bankua”) merkataritza-ekintza bat egingo du estatu-mailan, eta bertan parte hartu ahal izango dute oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta Kutxabankeko bezero diren 18 eta 26 urte bitarteko (bi adinak barne) pertsona fisiko guztiek.

Kanpaina honen xede bakar eta nagusia publizitatea eta sustapena da, eta parte-hartzaileak ez dauka kostu gehigarririk.

2.- Ze sari jaso dezakezu Kanpaina honetan parte hartzeagatik?

Kanpaina honek honako sari hauek ditu:

5.000 sari banatuko dira; haietako bakoitza 70 euroko hobari bat izango da (aurrerantzean, “Hobaria”) eta udako nominaren diru-sarrera egiten den aurrezki-kontuan abonatuko da zuzenean, Bankuak ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren betiere.

Hobariak une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren araberako zerga-atxikipena izango du.

Kanpaina bateragarria da beste sustapen batzuekin. Beraz, oinarri hauetan berariaz zehaztutako bateraezintasunak alde batera utzi gabe, hainbat kanpainatako hobariak metatu ahal izango dituzu, baldin eta kanpaina horietako bakoitzean kontrakoa adierazten ez bada eta oinarrietan ezarritako baldintza bereziak betetzen badituzu.

3.- Zenbat iraungo du Kanpainak?

Kanpaina 2026ko ekainaren 15ean hasi eta 2026ko irailaren 30ean amaituko da, bi egun horiek barne, edo, bestela, 5.000 sariak esleitzen direnean.

Kutxabankek Kanpaina hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea du, edo kanpainaren baldintzaren bat aldatzekoa, baldin eta arrazoi teknikoengatik, nahitaezko kausengatik edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik kanpainaren garapen normala bete ezin bada; Kutxabankek ez du horregatik inolako erantzukizunik izango. Kasu horretan, Kanpainako oinarri eta baldintzen edo kanpainaren ezeztatzearen berri emango dizugu ahalik eta lasterren.



4.- Ze baldintza bete behar dituzu Kanpaina honetan parte hartzeko?

Kanpaina hau amaitzen den egunean, hau da, 2026ko irailaren 30ean, Kutxabankek bezero diren eta honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten lehen 5.000 pertsonak parte hartu ahal izango dute Kanpainan:

- Zerga-egoitza Espainian izatea, Kutxabanken fitxategietan jasotako informazioaren arabera.
- 18 eta 26 urte bitartekoa izatea, bi adinak barne.
- Kutxabanken aurrezki-kontu bat eta Bizum zerbitzua izatea.
- Kontratututako zerbitzu horiek gutxienez hamabi (12) hilabetez mantendu behar dira Kanpainaren amaierako egunetik aurrera. Kanpainan parte hartzeko aukera eman dizuten posizioak ezeztatzen badituzu, kanpainatik kanpo geratuko zara. Ordurako Hobaria jaso baduzu, Kutxabankek hobariaren zenbatekoa kobratu ahal izango dizu.
- Ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean gutxienez 200 euroko nomina bat ordaindu izana, betiere baldintza hauek ere betetzen badituzu:
 - Kanpaina honetan, honako hau izango da nomina bat: enpresa ordaintzaileak nominagatik sortzen duen eta erakundeak jasotzen duen ordainketa-agindua, nominaren onuradunaren kontuan zuzenean abonatzeko.
 - Kanpaina hasi aurreko 8 hilabetetan nomina hori bera jaso ez izana.
 - Aurretik zure nomina Kutxabanken helbideratzeagatik emandako pizgarriak jaso ez izana. Hala ere, Kanpaina hau bateragarria da nomina helbideratzeagatik ondoren jaso dezakezun pizgarriarekin.
- www.kutxabank.es webgunean sartzea eta Kanpaina honen formularioa betetzea.
- Oinarri hauek irakurri eta onartzea.

5.- Nortzuk geratuko dira Kanpaina honetatik kanpo?

- Kanpaina bitartean eta Hobaria jaso arte Bankuan saldo zordunak, hau da, saldo negatiboak, dituzten pertsonak.

Datuak babesteko araudiaren baitan publizitaterik ez jasotzea eskatu duten pertsonak edo jakinarazpen komertzialik ez jasotzeko fitxategiren baten barruan daudenak.



6.- Zein da Kanpainaren mekanika?

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta, zehazki, 4. atalean aipatutako eskakizunak betetzen dituzten lehenengo 5.000 parte-hartzaileei 70 euroko Hobaria emango zaie.

Kutxabankek kanpoan utz zaitzake, kanpaina honetan parte hartzeko formularioa bete baduzu ere, Hobaria jasotzeko oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez badituzu.

Pertsona bakoitzak Hobari bakarra jaso dezake Kanpaina honetan.

7.- Nola jakinarazi eta emango dizugu Hobaria?

Kutxabankek nomina helbideratuta duzun kontuan abonatuko dizu zenbatekoa, oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen dituzula egiaztatu ondoren. Abonua automatikoki egingo da, eta, beraz, ez duzu tramite gehigarririk egin beharko. Ez da banakako jakinarazpen gehigarririk egingo.

Hobaria eskuratu ahal izateko, oinarri hauek onartzeaz gain, bertan jasotako baldintzak bete beharko dituzu. Oinarriok bete ez badituzu, Kutxabankek zu sariketarik kanpo uzteko eskubidea izango du, arrazoi justifikatuengatik.

Geroago egiaztatzen bada baldintzak ez direla betetzen edo 4. klausulan zehaztutako gutxieneko epean betetzen ez direla, Kutxabankek Hobariaren zenbatekoa erreklamatu ahal izango du. Kutxabankek Kanpaina honen barruan ordaindutako zenbatekoa kargatu eta/edo konpentsatu ahal izango du Kutxabanken zure izenean irekitako edozein kontu edo gordailutan. Ezin izango duzu saririk jaso kanpainaren amaiera-datan edo Hobaria ematean sariketan parte hartzeko aukera ematen zizuten posizioak ezeztatu badituzu.

8.- Hobariari uko egin ahal diozu?

Hobariari uko egin diezaiokezu, baina ezin diozu beste inori eman. Kasu horretan, Hobaria oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituen hurrengo pertsonari eman ahal izango dio Kutxabankek, zehaztuta dagoen hurrenkeran.

Hobariari uko egin nahi badiozu, Hobariaren abonua egin eta hurrengo bost (5) egun naturalen barruan idatziz jakinarazi behar diozu Bankuari, eta ordainetan ez duzu beste ezer jasoko.



9.- Zein da Kutxabanken erantzukizuna?

Kanpainaren garapenean eragina izan dezaketen eta erakundearen kontroletik kanpo dauden arrazoiengatik gertatzen diren gorabeheren aurrean Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko.

Halaber, kanpainatik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzeko duen edo oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituen edozein parte-hartzaile.

10.- Nola tratatuko ditugu zure datu pertsonalak?

Kutxabank SAK kanpaina honetako parte-hartzaileen datu pertsonalen tratamendu-arduradun gisa jokatuko du, datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren eta www.kutxabank.es webgunean eskuragarri dagoen Pribatutasun Politikaren arabera.

Kanpainan parte hartzeak parte-hartzaileen datu pertsonalak Kutxabankeko Informazio Sistematan sartzea dakar, parte-hartze hori kudeatzeko.

Datuak edozein publizitate edota sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, zure izena, abizenak edota irudia jasotzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko helburuarekin tratatuko dira soil-soilik. Ekinbide horiek ez dute ordainsari edo etekinik eskuratzeko eskubiderik sortuko, saridunaren edo, hala dagokionean, bere lege-ordezkararen baimena berariaz jasota badago.

Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoiz. Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide horiek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu horietan, beharrezkoa bada, nortasuna frogatzeko agiri bat erantsi beharko da.

Zure datu pertsonalak araudiak esan bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke dpo@grupokutxabank.com helbidean.



11. Zein da zure Hobariak izango duen zerga-tratamendua?

Sarituak bere gain hartu beharko ditu kanpaina honetako Hobariak ekar ditzaketen zerga-arloko kargak.

12. Lege-oinarriak

Kanpaina honetan parte hartzen baduzu, lege-oinarriak onartzen dituzu. Hobaria jaso ahal izateko, Kanpainan parte hartzen duen bezeroak egunean izan behar ditu ordainketak eta Kutxabanekin egindako eragiketa guztiak. Hortaz, ez du zorrik izan behar Kutxabanekin. Kutxabankek eskubidea du oinarri hauetako baldintzaren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak Kanpainatik kanpo uzteko. Oinarriok bezeroen eskura egongo dira www.kutxabank.es webgunean.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 21ean.